

UNIBERTSITATERAKO SARBIDE PROBA
25 URTETIK GORAKOENTZAT ETA 45 URTETIK GORAKOENTZAT

PROBA OROKORRA

2017ko PROBA



IRUZKIN

PROBA

ERANTZUNAK





Testu honetan oinarrituta, egizu testuaren ostean datorren jarduera.

- 1 SOS Klasismoa!, oihukatu dut lau haizetara, eta lau haizeak gorraizearekin daudenez, nire haizera hemen idaztea hautu onena dela deritzot. Zera esateko: arrazakeria baino gehiago, klasismoa dagoela mundu zikin honetan; eta kontuz, ez pentsa edozein azal zuri naizenik hori pentsatzeko.
- 5 Euskal Herrian beltzarana izatea egokitu zait Hamaika Kolore sortu baino lehen. Haurra nintzela nire herriko eskolan azal ilunagoko lau ume ginela oroitzen dut; gainontzeko hiru horiek sendia ziren, gainera. Orain eskolatik pasaz gero antzeman daiteke nola aldatu den jendartea, zer nolako jauzia eman duen sagar konpotatik mazedoniara.
- 10 Umetan berealdikoak entzundakoa naiz, *puto moro* eta antzeko zerrenda luze bat. Nerabezarotik aurrera ere izan ditut esperientzia gazi batzuk; tartean Donostian, fruta denda baten alboan lagun baten zain nengoela, XXI. mendeko fruta lapurreta handiena egiteko aukeraren esperoan nengoela egotzi zidan andre batek. Izena duena ba omen da; beraz, arrazakeria
- 15 bada. Frantzian bertan, etorkin askoren bilobak ez dira *liberte*, *egalite* eta *fraternite* sisteman ondo integratu; ezta nahi ere, pentsatuko dute batzuek. Jendeak portaera ezberdinak har ditzake norbaitekiko arrazaren arabera, baina, nire iritziz, sustraia beste nonbait dago; duela urte gutxi Frantzia osoan 10.000 kotxe erre zituzten gazteak ez
- 20 ziren etorkinak, ez ziren zuriak, eta ez ziren dirudunak. (...)
- Arrazakeria baldintzatzen duten faktore nagusiak klasea eta erosteko ahalmena dira, ez arraza bera. Ez zaie gaizki begiratzen atzerritar batzuei atzerritar izateagatik, baizik eta bere jatorria aintzat hartuta, klase sozial baxuago batekoak direla pentsatzen delako.(...)
- 25 Klean arropa saltzen duena eta Beyonce beltzak dira. Umeak eskolara eramaten dituen emakumea eta Joaquin Cortes dantzaria ijitoak dira. (...)
- Furgoneta batean lanean ari den gaztea eta Omaneko hamaika petrolio putzuren jabea arabiarrak dira.
- 30 Baina ez da berdina; onartu dezagun, ez da berdina. Futbol jokalaria hegoamerikarrak askoren heroiak dira; aldiz, festetan trapuak saltzen dituztenentzat orotariko izenak daude: *matxu pitxu*, *sudaka*, *payoponi*... Baserritik bizi zena eta enpresaria jatorri berdinekoak izan arren, jendarteak lehena gutxietsi du bigarren profilari gorazarre eginez.(...)
- 35 Beharbada, edozeinek suge baten herena ikusten duen tokian, ni herensuge bat ikusten ari naiz. Baina ez zait iruditzen, aldamenekoa arriskutsua dela



pentsetan hezi baikara; eta beltzarana bada, gehiago.

Ondorioz, arrazakeria eta klasismoa behin eta berriro gurutzatu eta besarkatuko dira, konponbidea aurkitu arte. Arrazakeriarik gabeko jendarteak⁴⁰ klase gabeko jendartea izan behar du derrigor, edo ez da izango.

Zu Zeu

Beñat Hach Embarek (moldatua)

Zu Zeu aldizkariak aukera eman die irakurleei beren iritzia adierazteko. Zuk artikulua irakurri duzu eta gai horren inguruan duzun iritzia adieraziko duzu. (10 puntu)

Egitekoa: idatzi testu bat. Artikuluak aipatzen duena kontuan hartuta, gai horren inguruan duzun iritzia adieraziko duzu. Zure testuak, gutxienez, berrehun hitz (200) eduki behar ditu.

Besteak beste, honako ideia hauek jaso ditzakezu:

- Zure iritzia adierazi (ados, kontra...) eta zergatia azaldu.
- Zure inguru hurbileko egoeraren adibideren bat edo beste eman.
- Gizarteak nola bizi du arraza desberdineko gero eta jende gehiago egotea?
- Zer egin daiteke, zure ustez, egoera hobetzeko?
- Ondorioa

Testua idatzi aurretik kontuan hartu aholku hauek:

- Testuaren zirriborroa egin ideiak antolatzen laguntzeko.
- Kontuan hartu eskatutako testuaren egitura:
 - o Sarrera idatzi eta gaia kokatu lehenengo paragrafoan.
 - o Testuan jorratu nahi dituzun ideia nagusiak paragrafotan antolatu
 - o Azken paragrafoan idatzi testuaren ondorioa.
- Idatzi ondoren, errebisatu eta azken zuzenketak egin entregatu baino lehen.
- Zirriborroa azterketarekin batera eman.

Idazlana zuzentzeko, honako ezaugarri hauek balioetsiko dira:

- Testuaren egokitasuna (eskatutakoaren betetze-maila, testu-generoaren egitura, erregistroa...).
- Ideien garapena eta koherentzia (ideiak elkarri lotuta, kontraesanik gabe adierazita).
- Esaldien eta pasartearen arteko kohesioa (erreparatu puntuazio-zeinuei, esaldiaren barruko hitzen ordenari, testu antolatzaile eta lokailuei);
- Testuaren zuzentasuna (morfosintaktikoa eta ortografikoa), egokitasuna eta lexiko eta egituren aberastasuna.



EBAZPENA IRUZKINA
(2017ko maiatza)

Testu idatzia zuzentzeko irizpideak. Txantiloia

Ebaluazio-irizpideak	Adierazleak	OSO ONDO	ONDO	GAIZKI
Egokitasuna (2 puntu)	- Testuak hizkuntza- erregistro egokia du.			
	- Testua ondo egokitzen zaio atazak planteatutako helburuari.			
	Egokitasuna	(.....puntu)		
Koherentzia eta kohesioa 4 puntu)	- Bat dator eskatutako testu-generoarekin: egitura argia eta zehatza du (artikuluak sarrera du eta ideia nagusiak paragrafotan daude antolatuta. Ondorioa ere jarri du).			
	- Gaiari lotutako iritziak adierazten ditu. Informazio esanguratsua ematen du.			
	- Testuan zehar ez du erreferentea galtzen eta anbiguotasuna saihesten du.			
	- Gaiak testuari batasuna ematen dio, ideiak ez daude sakabanatuta edo solte. Ideiak ondo garatuta.			
	- Ideiak elkarrekin lotuta daude eta lokailu eta testu antolatzaile egokiak erabiltzen ditu.			
	- Esaldien ordena egokia da eta izenordainak eta anaforak ondo erabiltzen ditu.			
	- Ondo erabiltzen ditu puntuazio zeinuak.			
	Koherentzia eta kohesioa	(.....puntu)		



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK: 25 ETA 45 URTETIK
GORAKOAK

2017ko MAIATZA

IRUZKINA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 y 45 AÑOS

MAYO 2017

COMENTARIO DE TEXTO

Lexikoa, sintaxia eta morfologia (4 puntu)	- Lexiko egokia, zehatza eta aberatsa erabiltzen du, sinonimoak baliatzen ditu eta errepikapenak saihesten ditu.			
	- Ortografia arauak betetzen ditu			
	- Arau morfosintaktikoak betetzen ditu.			
	Lexikoa, joskera, morfologia	(.....puntu)		
	GUZTIRA		